

SEI POEMA
(J. Agustin Goitisoló)

1) *Eska nago*

Nire begietatik, argitasun,
ez zaitez urrindu, aurrera
jarraitzeko arnas damostan
errazoia ez eratxi. Entzuizu,
nire solasen atzekaldetik,
itzik atera ezinda dagozan
gizonen lekaio-garrasia.
Arein zaplada-txastakaitik,
itzal arteko ormearen aurka
daukien burruka osoagaitik,
nik deskatzut: jarraitu zuk
zeure dizdizean, argi eidazu
bizitzan, eta zagoz une-oro
neugaz, eder zaitudan argitasun.

2) *Zelan jakin barik*

Beste abotsen
iskanbil artean,
aren abotsa nentzun,
nai neban bakarra.

Eldu zan
tximista bat legez,
ezpata leuna, betiko
larrosa aratza.

Ni aren
zain nengoan, eta arek,
erriaren abots zarrak,
barriz ots egin eban
nigan; ots, ots egin eban:
gorrak be entzuten dau
maite dauan kanpaia.

3) *75, Gower Street*

An, otsoago soloen
bazter zar-zarrean,
gizatalde txukun ta uts artean,
nik zu iduritzen, Espaiña,
txiro ta garbi, ta arrigarri,
ura baizen arrigarri, ta azke.

Iguin neutson urre-dizdizari,
aren al eta aintzari; orduari
guztien erdi egin neban txu;
gaitz-etsi neban, zuntzun legez,
areik arnasturiko aize-atsa.

Eta
zure arriak gogoratuz, zure euzki
maiztua, zure zidarrezko argia,
ni naz bai —esaten neban— arro
lurreko txokorik bikaiñenekoa.

4) *Oropesa'n idatzia*

Illunpeetako semeok,
ikustatu egizuez
zelai-alorrak. Ikusi, ba,
larratz-lur, eguzkipean
etzanik.

Beste esku
batzuen zain dagoz,
izerdi duñago zain.

Ba-dabe
irrarorako eskubidea.
Baina so egizue ondo,
oraintxe.

Arein lurra
zuen ilobi izango da,
eta, gaitetik,
zugatzak aizea
dabe agurtuko,
ruok kondaira
izatean.

5) Avila'n gabekoa

Amestu ezkeron,
ba-zakustaz,
Avila otza,
muruen gainetan
ikurrin-xingolakaz,
eta abesten dantzut,
barruenean,
neskatxak,
euren gizaldietako
mutu egotea
aztu dabenak.

Olan amesten zaitut,
olan zaitut maite,
olan izango zara,
ene Avila,
nair-ta,
orain be,
gaba izan.

6) Autormena

Idazirik
ixi gura dot
gertatzen dana.
Balkoira noa,
ta burua dot
ateraten.
Krespoiak dakustaz,
azta-makillak,
portasuna
datzan
il-kutxa
inguratuz.
Gizon batek
izugarri
ikurriña dau
jasoten.
Aren abotsak
illun dagi ots,
tanbor antzera.

Gero,
ixil-une.

Aur batek
bakar-bakarrik
negar dagi.
Askatasunaren proguak dira.

Igotz